

NABARRA DA NABARRA

Jorge Garay Zabala
(Zenon Uriguen
pasiotarrak euskeratuta)



NABARRA - NABARRA

Zein da Nabarraren jatorrizena? Ara emen: "naba" – lautada– sakongunea. Ordoki mendiaren oñetan, aran zabal ta ederrean, "erria" ta errialde galanta: NABARRA. **"Jatorrizena aldatzeko erriak ez dauko eskubiderik"**.

Arturo Kanpion-ek beti idatzi eban Nabarra. Aranatar Sabinok beti idatzi eban Nabarra 70 amarkada arte abertzale guztiak idatzi eta esaten eban Nabarra, eta ez Nafarroa. Euskeraz idazten ebenean beti idazten eban Nabarra. Eta erakunde batek "La insurrección en Euskadi" liburuxuan- 1964 urtean idazten dau Nabarra.

Napar euskaldunak, batua asmau baño leen, burundarrak, ultzamatarrak, baztandarrak, larraundarrak etb. esaten eban eta jarraitzen dabe esaten orain: "Naparra", asko geiago "nafarra". Eta gaur egunetan Nabarra kondairagille Oraila eta Unzuetar Luisek Nabarra'ko gaietan jakitunen artean idazten dau Nabarra ta ez Nafarroa. Urzainki ta Minatar Tomasek ez dau idazten iñoiz Nafarroa. Rekalde'tar Angele'k, Martinez ta Garate-tar Luis Mariak artikulogilleak Nabarra Nabarralde alkartekoa ta ez Nafarralde. Bardin Altuna ta Enzunzatar Aitzol'ek, analista, ta Saldise ta Alda'tar Iñigok artikulogilleak Nabarra beti idazten dabe. PNV ko senatari oia, Anasagasti'tar Iñakik bere idazki ugarietan Deian ez dau iñoiz idazten Nafarroa, Nabarra baizik. Amezaga ta Irribarren'tar Arantzazuk, liburu zaina ta idazlea beti Nabarra idazten dau. Irujo'tar Manuel'k politiko gallena izan dan Nabarra'n, eta beti idatzi ebalta Nabarra, ta ez Nafarroa.

NABARRA ZAZPIETAN LEENA?

ZER illeroko aldizkaian 2017 garrengo azken orrialdean bertso batzuk agertzen dira Nafarroa berba errepikatzen eta gañera esaten “Nafarroa zazpietan leena”, “Zergaitik zazpietan leena”? Zergaitik Bizkaia,



Gipuzkoa, Araba, Lapurdi, Benabarra, ta Zuberoa baño geiago da Nabarra? Lurralde aundiena dalako? Nabarra erreñu bat izan zan zazpi mende. Baña Nabarra erreñua izan baño lenago bai ziran euskal erriak euren edestia, jabetza ta euskalkiak. Danok gara bat, bardiñak ta **JAUNAK**. Danok euskaldunak izan gara beti eta abestu daigun. **Agur jaunak agur t´erdi. Danok Jainkoak iñak gire, zuek eta gu ere bai.**